

Azpeitiko Matxinada (2) 1766. Gertatua

Deia, 1983-08-26.

Loiolako eskuskribu batez baliatu gara gertatu zenaren laburpen hau emateko.

Apirilak 13, igandea, *Azkoitiko* erretoreak parrokian egin zuen sermoian eskatu zien eliztarrei granoak gordeta zituztenak, arren, ez zitzatela herritik kanpora saldu.

Hala ere, urrengo egunean, *hilak 14*, kanpotik zaldiak etorri ziren garia eta artoa eramatera, eta zamatuta herritik zihoaztela, errementari eta zapatari batzu geratu zituzten; jende asko bildu zen, eta zaldiak itzularazi, deskargatu eta erosleei dirua bueltatu hasi zieten.

Heldu ziren jauntak, eta zer nahi zuten galdetu zutenean granoak merkeago nahi zituztela; hala jarri zieten anega gari 30 errealean eta artoarena 20an; jendea lasaitu zen.

Arratsaldean, Azpeitiko jantxoek bazekiten gertatua, eta auzoko altxatuen beldur, konfidantzako baserritar batzu armatu eta janedariz ornitu zituzten, zer gerta. Hau nahiko ez zela, alkateak Loiolako erretoreari Saindutegia eraikitzeko obretan ari zirenetako gizon batzu eskatu zizkion, baina erretoreak erantzun motza jaso zuen langileengandik: denak bat zeudela granoen merkatzearekin.

Gaualdian, Azpeitian armatu zituzten baserritarrak Azkoitin lortutakoaren berri izan zutenean, Azkoitiarrak baino gutxiago ez zirela, eta elizako kanpaiak joaz bildu zituzten nekazariak eta Urrestilako matxinoak, denak armatuak; zazpirak aldean abiatu ziren denak txistua eta danbolina joaz Loiolako obretara.

Bi mila inguru omen ziren bildutakoak.

Jauntxo bat eta hiru apaiz artu zituzten aurrean, kandela piztu banarekin, bandera eta guzti; lapurtu zuten alondegia, sartu ziren okindegi eta tabernetan; kanpai hotsak lagun, sartu ziren etxe nagusienetan balkoietatik, apurtu lehio eta beirak. Primeziak gari eta artotan jasotzen eta jasotakoak gorde eta saldu nahi esan ibiltzen zen Azpeitian gorrotatuenetako bat, Antonio de Gorostiza, ohetik atera eta zegoen bezala kaleratu zuten; atera zituzten dendetatik tranpetako grano-neurriak eta plaza erdian makilaz apurtu zituzten. *Urrengo goizean*, 15, bildu zituzten Regimientokoak, eta garia 26 errealean eta artoa 16an tasatu zituzten.

Horiek dira Azpeitiko *Kapitulazio* famatuak, gero beste herriak beren eskaeratarako erabiliko zituztenak.

Matxinatuek iraultzako udala sortu zuten, bestearen ordeko.

Honela gauzak atondu eta gero, *15ko arratsaldean* prozesioa eratu zuten Azpeitian Loiolako elizararte, eskerrak emateko eta *Tedeum*-a abestu zuten.

Jauntxoek Donostiako komandanteari tropak eskatu zizkioten gauzak berriz bere tokian jarri zitzaizkien.